



Diktadura frankista (1939-1959)  
Gerraostea eta autarkia

---

6. gaia

# Francoren erregimenaren oinarri instituzional eta ideologikoak

---

Francoren diktadurak ia 40 urte iraun zuen, botere politiko zein militarra bereganatuz.

Agintea modu autoritario eta antidemokratikoan erabili zuen.

Erregimenak luze iraun zuen, egokitzapen gaitasuna, kontrola eta errepresioa zirela eta.

Herrialdean, immobilismoa eta zapalkuntza.

Nazioartean, jarrera zalantzata beste herrialdeen onarpena lortzeko.

# Francoren erregimenaren oinarri instituzional eta ideologikoak

---

01

Frankismoak ez zuen printzipio ondo egituraturik izan, beste iturri ideologiko batzuetatik hartu zituen.

02

Indar politiko guztiak alderdi bakarrean batu ziren (FET y de las JONS).

03

Elizak hasieratik babestu zuen Altxamendu Nazionala, gerra Gurutzada Santu gisa aurkeztuz.

04

Elizak hezkuntza kontrolatu zuen, erregimenaren alde manipulatz (nazionalkatolizismoa).

# Francoren erregimenaren oinarri instituzional eta ideologikoak

---



<https://www.youtube.com/watch?v=9BmZJwA2Tjk>



# Francoren erregimenaren oinarri instituzional eta ideologikoak

---

Erregimenaren Oinarrizko Legeak ezartzean instituzionalizatu egin zen, "konstituzioa" sortuz.

- Espainia erresuma izendatu zuen.
- Francok bizi bitarteko buruzagitza hartu zuen.
- Sindikatua desegin zituen bertikal bakarra ezarriz.
- Batasaun linguistikoa inposatu zen.
- Autonomiak deuseztatu ziren, estatu zentralista eta konfesionala ezarriz.

# Francoren erregimenaren oinarri instituzional eta ideologikoak

---

## Arlo politikoan

- Falangistak
- Militarrak
- Katolikoak
- Monarkikoak

## Arlo sozialean

- Apaizteria
- Oligarkak eta lur-jabe handiak
- Barnealdeko nekazariak
- Hirietako erdi maila

# Gerraosteko gizartea eta errepresio politikoa

---

Garaileek ospea, segurtasuna eta aukerak irabazi zituzten; galtzaileek, ostera, zapalkuntza bazterketa eta miseria.



Erregimenaren helburua estatu berria "garbitzea eta araztea" zen, Erantzukizun Politikoen Legearen bitartez. Hortaz, Azañak eskatutako "Bakea, Gupida eta Barkamena" ez ziren ailegatu.



Frankismoaren errepresioa gizarte osora zabaldu zen. Bortizkeria era askotakoa zen, fisikoa, ekonomikoa, kulturala, linguistikoa, soziala zein politikoa.

# Gerraosteko gizartea eta errepresio politikoa

---



<https://www.youtube.com/watch?v=zIyPLPhYk1U>

# Gerraosteko gizartea eta errepresio politikoa

---

Errepublikar askok erbestera joan behar izan zuten (intelektualak batez ere) eta Espainian geratutakoak espetxetan eta kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten.

- Horren ondorioz, funtsezko oinarri kultural, sozial eta politikoak desagertu ziren Espainian.

# Gerraosteko gizartea eta errepresio politikoa

---



<https://www.youtube.com/watch?v=veR94RMg3LU&t=1s>

# Autarkia ekonomikoa

---

40ko hamarkadan hondatutako herrialdea berritzeko, frankismoa egonkortzeko eta nazioartean kanpo politika bideratzeko asmoa zuen Frankok.

Ekonomia arloan autarkia politika ekonomikoa (autohornikuntza) zen nagusi eta sektore zein prozesu ekonomiko guztiak estatuak kontrolatzen zituen.

Gobernuak ekoizpen guztia kontrolatzen zuen, eta eskasiari aurre egiteko errazionamendu liburuxken sistema ezarri zen.

Janari moten eskasia zela eta, merkatu beltza (estraperloa) sortu zen, ustelkeria agerian utziz, gutxi batzuk aberastu baitziren.

# Autarkia ekonomikoa

---

Industria Institutu Nazionala (INI) hurrengo helburuekin sortu zuten:

- Enpresa espainiarrak indartzea.
- Buruaskitasun ekonomikoa lortzea.
- Kanpo harremanak saihestea, produktu atzerritarrei muga-zergak ezarriz.

Gobernuak urtegien eraikuntza bultzatu zuen, elektrizitatea lortzeko eta industria zein kontsumorako soroak ureztatzeko.

# Autarkia ekonomikoa

---

Autarkia politika ekonomikoaren emaitzak eskasak izan ziren, ekonomiaren garapena bultzatzea ez baitzen lortu, errekupeazio ekonomikoa atzeratu baitzen eta zerbitzu batzuetako bizi-baldintza oso txarrak baitziren.



Horren ondorioz, gerraostean pobrezia, gosea eta miseria nagusitu ziren, gaixotasunak eta heriotzak areagotuz.

# Autarkia ekonomikoa

---

50eko hamarkadan erregimen frankista egonkortu zen eta Espainia onartua izan zen.

- Espainiako Estatuaren eta 1953ko Egoitza Santuaren arteko konkordatua.
- AEBrekin sinatutako 1953ko Madrilgo itunak.



Ekonomian liberazio handiago baterako pausua eman zen, atzerriko lehen inbertsio eta inportazioei esker, ekonomia berrituz eta garatuz.

REDACCION  
Y ADMINISTRACION:  
TELEFONOS: 21-41-32  
21-41-33 21-41-34  
21-41-35

# LA VANGUARDIA

## ESPAÑOLA

SUSCRIPCION  
Barcelona:  
Un mes . . . Ptas. 8000  
Provincias:  
Un trimestre . . . 24000

Precio de este ejemplar: 70 cts.

Vicente, 28 de agosto de 1953

UN ACONTECER MEMORABLE PARA LOS CATOLICOS ESPAÑOLES

## Nuevo Concordato entre la Santa Sede y España

Fué firmado ayer en el Palacio Vaticano, entre el señor Martín Artajo y monseñor Tardini,  
prosecretario de Estado para Asuntos extraordinarios eclesiásticos

El artículo primero mantiene el principio de la unidad religiosa de la nación española



# Barnealdeko erresistentzia eta erbesteko oposizioa

---

## Herrialdean

- Makia, frankismoaren aurkako gerrilla, ideologikoki anarkistak edo komunistak zirenak, mendietan ezkutatuta borrokatzen zuten.
- 40ko hamarkadatik 60ko hamarkadan desegin zen arte borrokatu zuten.

## Herrialdetik kanpo

- Gobernu errepublikarra (sozialistak, anarkistak, komunistak, euskal gobernua, etab.) erbestean antolatu zen.
- II MG aliatuek irabaztean, itxaropentsu agertu ziren, baina haien arteko desberdintasunak zirela eta, ez zuten laguntza praktikorik lortu.

# Barnealdeko erresistentzia eta erbesteko oposizioa

---

Langileek eta ikasleek lehen grebak antolatu zituzten, nahiz eta debekatuta egon arren, eta istiluak sortu ziren.

Euskal Herrian:  
industria  
siderurgiko eta  
ontzioletan.

Galizian:  
ontzioletan.

Asturiasen:  
meatzaritzan.

Katalunian:  
ehungintzan,  
metalgintzan eta  
unibertsitateetan.

Madrilen: auzo  
industrialetan eta  
unibertsitateetan.

Andaluzian:  
industria  
guneetan eta  
nekazaritzan.



# Barnealdeko erresistentzia eta erbesteko oposizioa

---

50. hamarkadaren amaieran ekonomiaren garapenak aldaketa sozio-kultural ugari ekarri zituen, langileen mugimendua politizatuz.



Greba eta manifestazio ugari antolatu zituzten klandestinitatean zeuden sindikatuekin bat eginda.



Unibertsitateko mugimendua indartu zen, sistemaren kontrako jarrera erakutsiz.



Elizaren sektore batek frankismotik urruntzen hasi zen diktaduraren aurkako jarrera kritikoa erakutsiz.

# Barnealdeko erresistentzia eta erbesteko oposizioa

---

Oposizio politikoari dagokionez, desadostasunak alde batera uztea eta batera aritzea erabaki zuten (Santiago Carrillo PCEn eta Felipe González PSOEn).

1959an ETA taldea sortu zan, nazionalismo tradizionalarekin hausteko asmoz, Euskal Herriaren independentzia lortzeko eta estatu sozialista bat sortzeko helburuarekin.

Barne eta kanpoko testuinguru politikoan diktadura garaiz kanpo zegoen eta, denborarekin, desegiten joan zen, 1975ean Franco hil zenean desegin zen arte.



# Nazioarteko politika: isolamendutik integratziora

---

Gerraostean erregimenak birrindutako herrialdea berreraiki behar zuen, sistema politiko berria egonkortu eta nazioartean kanpo politika bideratu.

Espainiak II MGn erakutsi zuen jarrerak argi utzi zuen frankismoaren ahultasuna; hasieran neutral agertu zen, egoera ekonomikoa oso txarra zelako, baina batetik bestera ibili ziren, gatazkaren norabidearen arabera.

Ideologikoki bat egiten zuen Alemania naziarekin eta Italia faxistarekin, baina Frantzia zein Ingalaterrarekin harreman komertzialak pisu handia zuten.

Parte hartze praktikoa Dibisio Urdinarekin egin zen, SESBera komunismoaren aurka eta Alemaniaren alde tropak borrokatzeko bidaliz.





# Nazioarteko politika: isolamendutik integratziora

---



<https://www.youtube.com/watch?v=LXEV-eU-EIQ>

## Nazioarteko politika: isolamendutik integratziora

---

II MGn aliatuak nagusitzean, beligerantzia eza politika ezarri zuen, aliatuen alde eginez. Dena den, nazioartean zalantzan jarri zen, erregimen faxistekin zuen loturagatik.



Gerra Hotza hastearekin batera, 50eko hamarkadan erregimen frankista egonkortu zen, eta Espainia aintzatetsia izan zen; Mendebaldeko blokerak hurbildu zen antikomunismo erabakigarriari esker.

# Nazioarteko politika: isolamendutik integraziora

---

Atzerriko inbertsioa, turismoa, industrializazioa eta emigrante espainiarrek bidaltzen zuten diruari esker, garapen ekonomikoa heldu zen ("mirari ekonomikoa") eta aldaketa sozio-kulturalak eman ziren.

Dena den, immobilismoa eta kontinuitismoa ziren nagusi, eskubide zein askatasunen gabeziarekin.

Denborarekin oposizio bat antolatu zen (langile, ikasle eta elizaren atal batena), baina ETArena gogorrena izan zen.

Gobernuak errepresio eta zapalkuntzarekin erantzun zuen, eta nazioartean zapalkuntzan oinarritutako politika ezartzeak protestak bultzatu zituen.